



## 4. NOLA TXERTATU IKUSPEGI KOMUNITARIOA GURE ZERBITZU ETA EKIPAMENDUTAN?



### HELBURUA DA...

Udaleko zerbitzuetan ikuspegi komunitarioa txertatzeko ariketa praktikoa egitea, lan egiteko moduetan eragiteko.



### ZEHAZKI BILATUKO DUGU...

- Udaletan ikuspegi komunitarioarekin aritzeak eraldaketa sustatzeko daukan balioaz jabetzea.
- Udalak eta udal-zerbitzuek ekintza komunitarioaren inguruan dituzten aurrezagutza eta praktikak ezagutzea.
- Udaleko praktikatik abiatuta, udalean ikuspegi komunitarioa txertatu edo garatzeko eman beharreko urratsak irudikatzea eta horretarako, eman behar diren barne- eta kanpo-baldintzak identifikatzea.
- Udalaren egunerokoan, udal-zerbitzuetan ikuspegi komunitarioa txertatu edo garatzeko jarraibideak ematea.

**Udaleko zerbitzu edo ekipamenduetatik – liburutegi, kultur etxe, kiroldegi, gazteleku...– bizi-tza komunitarioari ekarpena egiten diogu? Herritarren inplikazioa eta protagonismoa errazten dugu? Ikuspegi inklusibo batetik lan egiten dugu? Gogoeta hauek zure udalera eraman nahi badituzue, hau da zuen tailerra.**

